

EMARI EKOLOGIKOEN ERREGIMENA EZARTZEKO HITZARTZE PROZESUA

**Kontsulta publikoaren eta parte-hartze aktiboaren
eranskina**

OIARTZUN UNITATE HIDROLOGIKOA

**Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa
- EAEko Barne Arroen Eremua -**

2018KO EKAINA

Agencia Vasca del Agua / Uraren Euskal Agentzia



Aurkibidea

1.	SARRERA	1
2.	HITZARTZE PROZESUA.....	2
2.1	HITZARTZE PROZESUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA.....	2
2.2	HITZARTZE PROZESUAREN FASEAK.....	2
3.	KONTSULTA PUBLIKO ETA PARTE-HARTZE AKTIBOKO PROZESUEN EGITURA OROKORRA ...	4
4.	BURUTUTAKO EKINTZAK	5
4.1	KONTSULTA PUBLIKOA	5
4.2	PARTE-HARTZE AKTIBOA.....	6
5.	KONTSULTA PUBLIKOAN ETA PARTE-HARTZE AKTIBOAN ESKURATUTAKO EMAITZAK	9
5.1	KONTSULTA PUBLIKOA (A ETA B TALDEAK).....	9
5.2	PARTE-HARTZE AKTIBOA (B TALDEA).....	9
6.	KONTSULTA PUBLIKO ETA PARTE-HARTZE AKTIBOKO FASEEK HITZARTZE PROZESUAN ERAGINDAKO ALDAKETAK	10
6.1	KONTSULTA PUBLIKOA	10
6.2	PARTE-HARTZE AKTIBOA.....	10
7.	ONDORIOAK	11
	I ERANSKINA. KONTSULTA PUBLIKOA.....	I
	II ERANSKINA. PARTE-HARTZE AKTIBOA	VII

Taulen aurkibidea

1. taula. Oiartzun UHn kontsulta publikorako ezarritako aldia.....	5
2. taula. Oiartzun UHko ingurumen-arloko organo eskuduna	6
3. taula. Oiartzun Unitate Hidrologikoan Hitzartze Prozesua (A taldea) amaitzeko Ebazpena	6
4. taula. Oiartzun UHko Hitzartze Prozesuaren parte-hartze aktiboko fasean burututako ekintza nagusiak.....	8

Irudien aurkibidea

1. irudia. EAEko Barne Arroen Eremuan Hitzartze Prozesuan eman beharreko urratsak	3
2. irudia. Hitzartze Prozesuko kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko mailak.....	4

Akronimoak

Sigla	Deskribapena
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
KKH	Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa
EBA	EAEko Barne Arroak
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
DH	Demarkazio Hidrografikoa
ILJP	Itsas-lehorreko Jabari Publikoa
PHJ	Plangintza Hidrologikorako Jarraibideak
PH	Plan Hidrologikoa
KEDPH	Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa
EEE	Emari Ekologikoen Erregimena
400/2013 ED	Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen duena
PHE	Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua
UH	Unitate Hidrologikoa
URA	Uraren Euskal Agentzia

1. Sarrera

Dokumentu honen xedea emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuaren barnean Oartzun Unitate Hidrologikoa (UH) egin diren **kontsulta publikoko eta parte-hartze aktiboko** prozesuak deskribatzea da.

Hitzartze Prozesua **Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa** (aurrerantzean KEDPH) **onartzen duen ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren 15. artikuluan, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduan** (PHE) eta **Plangintza Hidrologikorako Jarraibidetan** (PHJ) ezarritakoaren arabera garatu da.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa (DH), demarkazio hidrografikoen lurralde-eremuak mugatzen dituen otsailaren 2ko 125/2007 Errege Dekretuko – Urtarrilaren 4ko 29/2011 Errege Dekretuak aldatutakoa – 3.2 artikuluan dago zehaztuta. Eremu honetan, alde batetik, **Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroak** (EBA) sartzen dira. Bertako eskumena, uraren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Uraren Euskal Agentziaren (URA) bitartez. Bestetik, erkidego arteko arroak daude eta hauen eskumena Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren (KKH) bitartez. Dokumentu honek EBA-etan burutu den prozesuaz soilik dihardu.

Dokumentu honen egitura zazpi kapitulu eta bi eranskinetan banatuta dago ondorengo paragrafoetan adierazten den bezala. Sarrerako kapitulu honen ondoren, **bigarren eta hirugarren kapituluetan**, EAEko Barne Arroetan garatutako Hitzartze Prozesuaren deskribapena laburtzen da.

Ondoren, **laugarren, bosgarren eta seigarren kapituluetan**, Oartzun Unitate Hidrologikoko kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko prozesuak eta lortutako emaitzak zehazten dira. Azkenik, **zazpigarren kapituluan**, aipatutako UHrentzat, prozesu hauen ondorioak laburbiltzen dira.

Oartzun UHko kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko prozesuen ondorioz sortutako dokumentazio guztia **I. eta II. Eranskinetan** atxikitu da.

2. Hitzartze Prozesua

2.1 Hitzartze Prozesuaren deskribapen orokorra

Hitzartze Prozesua EAEko Barne Arroen Eremu guztira hedatu da, unitate hidrologiko bakoitza banaka landuz. Era berean, ustiapen-sistemen bitartez beren artean nolabaiteko konexioren bat duten unitateen arteko interakzioak ere aztertu dira.

EAEko Barne Arroen Eremuan 12 unitate hidrologiko existitzen dira. Alde batetik, Oka, Urola, Oiartzun, Lea, Artibai, Butroe, Barbadun eta Deba, Euskal Autonomia Erkidego barruan kokatzen direnak osorik, eta, bestetik, Urumea, Oria, Ibaizabal eta Bidasoa, autonomia erkidego mugakideren batera hedatzen direnak.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren (aurrerantzean 400/2013 ED), hau da, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen duen dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, **Hitzartze Prozesu** honen **helburua indarrean dauden aprobetxamenduetan emari ekologikoak ezartzea** izan da.

Emari ekologikoen erregimena (EEE) ezartzeko, PHJko 3.4. atalean zehaztutako faseak jarraitu dira. Erabilitako metodologiaren deskribapena eta horretarako eginiko azterlanak URAREN web orrian (www.uragentzia.euskadi.eus/) publikoaren eskura jarritako "[Dibulgazio-dokumentua](#)" delakoan kontsulta daitezke.

Hitzartze Prozesua 2013ko ekainaren 9an indarrean zeuden, beren klausulan barruan berariaz Planean ezarritako emari ekologikoen erregimena (EEE) betetzeko aurreikuspenik ez zuten eta, *a priori*, eskura zegoen informazioarekin eskubidea iraungitzeko, berritzeko edo oinarritzko ezaugarriak aldatzeko espedienterik ireki behar ez zitzaizkien emakideen titularrekin egin da.

Prozesu honek gaur egun existitzen diren erabilerak, eskaerak, berorien emakida-erregimena eta jardunbide egokiak hartu ditu aintzat. Lehenik eta behin, **parte-hartze publikoko** prozesu bat garatu da, informazio eta kontsulta publikoa sustatuz. Ondoren, eta Administrazio Hidrauliko honen erabakiz, EEE errespetatzeak uraren erabileraren mugaketa esangurantsua eragin zezakeela aurreikusten zen ur-aprobetxamenduen kasuan, **parte-hartze aktiboko** prozesu bat burutu da.

2.2 Hitzartze Prozesuaren faseak

EAEko Barne Arroen Eremuan indarrean dauden aprobetxamenduetan emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesua 1. irudian agertzen diren faseak jarraituz burutu da.

Fase horietan eginiko azterlan eta azterketa guztiak xehetasunez ezagutzeko URAREN web orrian publikoaren eskura jarritako "[Dibulgazio-dokumentua](#)" kontsulta daitezke.

1. URRATSA URAREN ESKUBIDEEN EMAKIDEI BURUZKO INFORMAZIOA KONTSULTATZEA ETA HAUTATZEA	<ul style="list-style-type: none">• INDARREAN DAUDEN APROBETXAMENDUAK IDENTIFIKATZEA• HITZARTU BEHARREKO APROBETXAMENDUAK HAUTATZEA• APROBETXAMENDUAK TALDEKATZEA UNITATE HIDROLOGIKOEN ARABERA
2. URRATSA APROBETXAMENDUEN EZAUGARRIAK ETA PLAN HIDROLOGIKOAREN INFORMAZIOA AZTERTZEA	<ul style="list-style-type: none">• EREMU BABESTUEN ERREGISTROAREN AZTERKETA ETA PLAN HIDROLOGIKOKO BALIABIDE ETA ESKAEREN ARTEKO BALANTZEA• ESKUBIDEAREN TITULUEN DATU ADMINISTRATIBO ETA JURIDIKOEN AZTERKETA (EEEren BURUZKO KLAUSULEN BERRIKUSPENA)• PLAN HIDROLOGIKOAREN INFORMAZIOA GEHITZEA (UR MASA, HARGUNEAK ZER TARTETAN KOKATZEN DIREN, EREMU BABESTUAK)
3. URRATSA EEEren HIDROLOGIA- ETA INGURUMEN- OSOTASUNAREN AZTERKETA ETA EZARKETAREN ERAGIN TEKNIKOA, EKONOMIKOA ETA SOZIALA	<ul style="list-style-type: none">• BALIABIDE/ESKAERA SIMULAZIO EREDUEN AZTERKETA• EEEren HIDROLOGIA ETA INGURUMEN OSOTASUNAREN AZTERKETA ETA EEE EZARTZEAREN BALIZKO ERAGINENA• APROBETXAMENDUEN SAILKAPENA (A TALDEA ETA B TALDEA) HAUTATZE IRIZPIDEAK APLIKATZEAREN BITARTEZ
4. URRATSA INFORMAZIOA	<ul style="list-style-type: none">• HITZARTZE PROZESUAREN INFORMAZIOA INTERESDUNEN ESKURA JARTZEA HAINBAT BITARTEKO ERABILITA: WEBGUNEA, POSTA OFIZIALA, URA-REN BULEGOAK, ...
5. URRATSA KONTSULTA PUBLIKOA	<ul style="list-style-type: none">• KONTSULTA PUBLIKOA IREKITZEAREN ARGITALPENA UNITATE HIDROLOGIKO BAKOITZEAN• HILABETEKO KONTSULTA PUBLIKOA• ALEGAZIOAK JASOTZEA
6. URRATSA ALEGAZIOAK AZTERTZEA ETA BEHIN BETIKO PROPOSAMENA A TALDERAKO	<ul style="list-style-type: none">• ALEGAZIOEN AZTERKETA (A TALDEA ETA B TALDEA)• BEHIN BETIKO PROPOSAMENA PRESTATZEA A TALDERAKO
7. URRATSA PARTE-HARTZE AKTIBOA (B TALDEA)	<ul style="list-style-type: none">• APROBETXAMENDUEN TITULARREKIN BILERAK• ETA, KASUA HALA DENEAN, PROTOKOLOAK SINATZEA
8. URRATSA ALEGAZIOAK ETA ANALISIAK; BEHIN BETIKO PROPOSAMENA B TALDERAKO	<ul style="list-style-type: none">• ALEGAZIO BERRIAK AURKEZTEA (BILERAK AMAITU ETA HILABETEZ) ETA AZTERTZEA• BEHIN BETIKO PROPOSAMENA PRESTATZEA B TALDERAKO


1. irudia. EAEko Barne Arroen Eremuan Hitzartze Prozesuan eman beharreko urratsak

Jarraian, EAEko Barne Arroen Eremuan Hitzartze Prozesuaren barruan burututako kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko prozesuak sakontasun osoz deskribatzen dira.

3. Kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko prozesuen egitura orokorra

Arestian nabarmendu den bezala, emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuaren harira egindako azterlan guztiekin derrigorrezkoa zen parte-hartze publikoko prozesu bat burutu da, informazio eta kontsulta publikoa sustatuz (ikus 2. irudia).

Era berean, B taldeko aprobetxamenduen kasuan, parte-hartze aktiboko prozesu bat ere garatu da, emari ekologikoen eta ur-erabileren arteko bateragarritasuna lortzeko bidean adostasun gehiago erdiesten lagundu duena. B taldeko aprobetxamendu horien kasuan, *a priori*, emari ekologikoen erregimena errespetatzeak uraren erabileran mugaketa esanguratsua eragin zezakeela aurreikusten zen.



2. irudia. Hitzartze Prozesuko kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko mailak

Parte-hartze aktiboaren maila honetan, B taldeko aprobetxamenduen titularrekin zenbait bilera egin dira, eta beroien xedea, emari ekologikoen erregimena ezartzeko helburuarekin, akordio desberdinetara iristea izan da (emakidetako emarien malgutasuna, ezarketa planaren barruan gauzatu beharreko jarduerak, obrak egiteko gehieneko epeak, etab.). Horretarako, hainbat proposamen aztertu dira, betiere kontuan izanik, ez bakarrik emakida-erregimena, baizik eta aprobetxamenduen gaur egungo ur-erabilerak eta eskaerak, eta bereziki, jardunbide egokiak.

Azken helburua plangintza hidrologikoan zehaztutako emari ekologikoen erregimena ezartzea izan da, ahalik eta adostasun handienarekin.

4. Burututako ekintzak

4.1 Kontsulta publikoa

Gaur egungo erabilerei buruzko informazioa behin identifikatu, hautatu eta aztertu ondoren, eta aprobetxamenduak A eta B taldeetan sailkatu ostean, parte-hartze publikoari eman zitzaion hasiera, beroren lehen maila, hau da, **informazio maila** abian jarritz.

Honela, URAREN web orriaren bitartez (www.uragentzia.euskadi.eus), ondorengo informazioa publikoaren eskura jarri zen:

- Dibulgazio-dokumentua, EAEko Barne Arroen Eremuan emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuari buruzko informazioa jasotzen duena.
- Unitate hidrologiko bakoitzean burutu beharreko Hitzartze Prozesuaren ezaugarriei buruzko berariazko informazioa jasotzen duen dokumentua, eranskin banatan, Hitzartze Prozesuaren barne zeuden aprobetxamenduak jasotzen dituen (A eta B taldeak).
- Azterlan-eremuan Hitzartze Prozesuaren barruan indarrean zeuden aprobetxamenduen emakida-informazioa.
- Azterlan-eremuko emari ekologikoen erregimenen mapak, ibai-tarte eta ur-masaren arabera.
- Hainbat motatako informazioaren kontsulta espaziala ahalbidetzen duen GIS ikusgailua, zehatzako esanda, PHren Araudian aurreikusitako interpolazio prozeduraren bitartez (400/2013 ED, 13.4. art.) ur-masa bateko puntu batean emari ekologikoen erregimena zehaztea ahalbidetzen duena.

Web orrian eta URAk erabiltzen dituen beste hainbat bitarteko elektronikoren bitartez (twitter, Irekia, posta elektronikoa) unean uneko informazioa argitaratu zen emari ekologikoak ezartzeko Hitzartze Prozesuaren garapenari buruz.

Oiartzun Unitate Hidrologikoaren kasuan, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2015eko maiatzaren 28ko Ebazpenaren bitartez (GAOn, azterketaren xede den UHn sartzen diren udalerrietako iragarki-oholetan eta URAREN web orrian argitaratutakoa), hilabeteko epea ireki zen interesdunek unitate hidrologiko honetan zehaztutako Hitzartze Prozesuaren inguruan egoki irizten zituzten alegazioak edo iradokizunak aurkeztu zitzaizten. 1. taulan dokumentu honen xede den eremuan **kontsulta publikorako** ezarritako aldia erakusten da.

Unitate Hidrologikoa	Kontsulta publikoa irekitzen duen Ebazpenaren data	Aldizkari Ofizialeko iragarkiaren esteka
Oiartzun	2015/05/28	GAO.106. zk., 2015/06/08

1. taula. Oiartzun UHn kontsulta publikorako ezarritako aldia

Gainera, Hitzartze Prozesuaren barruan zeuden Oiartzun UHko hainbat aprobetxamendu Natura 2000 Sarearen edo Espezie Mehatxatuen Interes Berezikotako Eremuen barruan kokatzen direnez, 2. taulan ageri den bezala, ingurumen-arloko organo eskudunari kontsulta publikoko prozesuari zegokion informazio guztia helarazi zitzaion (ikus **IA Eranskina**).

Unitate Hidrologikoa	Informazioa helarazitako data	Arloko organo eskuduna
Oiartzun	2015/06/04	Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia (GFA)

2. taula. Oiartzun UHko ingurumen-arloko organo eskuduna

Behin kontsulta publikoa amaituta eta herritarren iritzia kontuan hartzeko asmoz, jasotako alegazioak/iradokizunak aztertu ziren eta horien berri eman zen (ikus 5.1 atala eta I. Eranskina). Hala eta guztiz ere, Oiartzun UHri eragin ziezaiokeen iradokizunik jaso ez zenez, ez zen aldaketarik egin UH honetako A taldeko aprobetxamenduetan emari ekologikoak ezartzeko zehaztutako Hitzartze Prozesuan.

Azkenik, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2015eko uztailaren 21eko Ebazpenaren bitartez, Oiartzun Unitate Hidrologikoko dokumentua onetsi zen, bertako A taldeko aprobetxamenduetan Hitzartze Prozesua amaitutzat emanez. Aipatutako Ebazpena, GAOn (ikus 3. taula), azterketaren xede den UHn sartzen diren udalerrietako iragarki-oholetan eta URAREN web orriari argitaratu zen.

Unitate Hidrologikoa	Behin betiko Ebazpenaren data	Aldizkari Ofizialeko iragarkiaren esteka
Oiartzun	2015/07/21	GAO. 173. zk., 2015/09/10

3. taula. Oiartzun Unitate Hidrologikoan Hitzartze Prozesua (A taldea) amaitzeko Ebazpena

Amaitzeko, A taldeko aprobetxamenduen titularrei bete beharreko emari ekologikoen erregimenak jakinarazi zitzaizkien.

4.2 Parte-hartze aktiboa

B taldeko ur-aprobetxamenduen kasuan, *a priori*, emari ekologikoen erregimena errespetatzeak uraren erabileraren mugaketa esanguratsua eragin zezakeela aurreikusten zen; hori dela eta, ur-aprobetxamendu horiek ziren ingurumen-helburuak betetzeko garaian eragin handiena izan zezaketenak. Horregatik, emakida hauen titularrekin **parte-hartze aktiboko** prozesu bat garatu da.

4. taulan **Oiartzun UHn B taldean** sartu zen aprobetxamendu bakarria ageri da, hasiera batean parte-hartze aktiboko prozesuaren xede izateko proposatu zena. A-G-2011-0983 erreferentziadun aprobetxamendua da eta industria-erabilerara (errotaritza eta paper-fabrika) dago bideratuta.

Lehenik eta behin, Hitzartze Prozesuarekin loturik eskuragarri zegoen informazio guztia aztertu zen, ur-aprobetxamendu honen harguneetan errespetatu beharreko emari ekologikoen erregimenak eta gaur egungo ur-erabilerak bateragarriak zirela ondorioztatuz.

Ondoren, parte-hartze aktiboko prozesuari hasiera emanez, 2016ko uztailaren 14an aprobetxamenduaren **titularrekin lehen bilera** egin zen. Bertan, egindako azterlanen ondorioen berri eman zitzairen eta hilabeteko epea zehaztu zen iruditzen zitzaizkien alegazio edo iradokizunak aurkeztu zitzaizkien. Epe hori amaitu ostean, ur-aprobetxamenduaren harguneetan errespetatu beharreko emari ekologikoen erregimenak jakinarazi zitzaizkien.

Paraleloki, 2016ko abuztuaren 19an, ur-aprobetxamenduaren titularrek idatzi bat igorri zuten Agentzia honetara, jakinarazitako emari ekologikoen erregimenen ezarpenarekiko beren desadostasuna adieraziz. Ondorioz, URAK azterketa xeheagoak egin zituen eskuragarri zegoen informazio guztia eta beste datu publiko batzuk kontuan hartuta. Egindako azterketa guztiak

“Estudio de compatibilidad entre los usos del agua del aprovechamiento otorgado a la Comunidad de Usuarios La Fandería y el mantenimiento de los caudales ecológicos” delako dokumentuan bildu ziren. Azterketa horiek emari ekologikoen erregimenen eta gaur egungo ur-erabileren arteko bateragarritasuna erabat bermatuta ez zegoela ondorioztatu zuten.

2017ko otsailaren 22an, URAk ur-aprobetxamenduaren titularrei azterketen ondorioen berri eman zien **bigarren bilera** batean. Gainera, Agentzia honek eginiko bateragarritasun-azterketa eman zitzaizen, berau berrikusi eta ekarpenak egiteko.

2017ko ekainaren 8an ur-aprobetxamenduaren titularrek beren jarduketa-proposamena igorri zioten URARI, ur-erabileren eta emari ekologikoen arteko bateragarritasunaren bilaketan aurrerapauso bat emateko asmoz. Proposamen horren edukia eta Hitzartze Prozesuaren inguruan sor zitezkeen kontuak aztertze helburuarekin, 2017ko uztailaren 12an **hirugarren bilera** bat egin zen; bertan, emari ekologikoen erregimena ezartzeko kudeaketa-plan bat zehaztea adostu zen.

Adostutako akodio guztiak 2018ko otsailaren 20an bi aldeek sinatutako *“Fanderia erabiltzaileen erkidegoari emandako aprobetxamenduan emari ekologikoen erregimena ezartzeko kudeaketa-plana”* izeneko dokumentuan jaso ziren.

A-G-2011-0983 erreferentziadun ur-aprobetxamenduan Hitzartze Prozesua amaitutzat emateko, bere titularrei emari ekologikoen erregimenak eta bete beharreko preskripzioak jakinarazi zitzaizkien, kudeaketa-planean zehaztutakoarekin bat etorritz.

OIARTZUN UNITATE HIDROLOGIKOA								
Zk.	Espedientearen erreferentzia	Erabilera	URAREN berriazko azterlanaren hasierako ondorioak	Parte-hartze aktiboaren hasiera data	Jasotako alegazioak	Bidalitako erantzuna	Lortutako akordioa	Parte-hartze aktiboaren amaiera data
1	A-G-2011-0983	Industrialia (errotaritza eta paper-fabrika)	Ur-erabileren eta KEDPHn zehaztutako EEE ezarpenaren arteko bateragarritasuna ez dirudi guztiz bermatua dagoenik. Bateragarritasun-azterketa egiterakoan eskuragarri zegoen informazio hoberena erabili arren, egindako diagnostikoa ziurgabetasun ezberdinei lotuta dago; horien artean, erabiltako datu hidrologikoen luzeerari, arroko ur-erabileretan emandako patroia aldaketei eta kontsumitutako ur-bolumenen bilakaerari dagozkienak. Hortaz, dauden ziurgabetasunak murriztu eta konponbideak bilatuko dituen kudeaketa-plan bat garatzeko beharra ezartzen da, ingurumen-helburuen eta uraren erabileren arteko bateragarritasun-maila hobetzeko.	2016/07/14	Bai	Bai	Aurrekariak eta bileretan tratatutakoa kontuan hartuz, bi aldeek harguneetan errespetatu beharreko emari ekologikoak indarrean dagoen Plan Hidrologikoen ezarritakoak izan daitezela hitzartu dute alde batetik. Era berean, eta URAK eginiko bateragarritasun-azterketan azaltzen den bezala, emari ekologikoen eta ur-erabileren arteko bateragarritasuna osorik bermatuta ez dagoenez, ziurgabetasunak murriztu eta konponbideak bilatuko dituen kudeaketa-plan bat garatzeko beharra sortzen da. Plan horrek 2021 arte azterketa- eta jarraipen-aldi iragankor baten ezarpena jasotzen du. Aldi horretan zehar, egoeraren azterketa zehatzagoak eta jarraipen espezifikoak (emari ekologikoen eta ur-erabileren arteko bateragarritasun-mailaren jarraipena, uraren erabileraren eraginkortasuna hobetzeko aukeren azterketa, ur-masen egoeraren jarraipena,...) egingo dira, baita ubide osoa berrikusteko eta hobetzeko lanak ere. Horretaz gain, Fanderia hargunean emari ekologikoen erabateko errespetua eskatuko da. Gabierrotako hargunetik ibaian behera, aldiz, emari horien erabateko errespetua posible ez denean, jardunbide egoekiekin bat datorren emaria errespetatzea eskatuko da, hau Itsas-lehorreko Jabari Publikoan kokatuta baitago. Lortutako akordio guztiak "Fanderia erabiltzaileen erkidegoari emandako aprobetxamenduan emari ekologikoen erregimena ezartzeko kudeaketa-plana" delako dokumentuan jaso dira.	2018/02/20

4. taula. Oiarzun UHko Hitzartze Prozesuaren parte-hartze aktiboko fasean burututako ekintza nagusiak

5. Kontsulta publikoan eta parte-hartze aktiboan eskuratutako emaitzak

5.1 Kontsulta publikoa (A eta B taldeak)

Arestian nabarmendu den bezala, informazio eta kontsulta publikoko aldiak amaitzean, EAEko Barne Arroen Eremuan garatutako emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesua zela eta, hainbat idatzi jaso ziren Uraren Euskal Agentzian; halere, horietako batek ere ez zuen Oartzun UHn eraginik.

5.2 Parte-hartze aktiboa (B taldea)

Oartzun UHn B taldean sartu zen industria-erabilerara (paper-fabrika eta errotaritza) bideratutako ur-aprobetxamendu bakarraren kasuan, eskuragarri zegoen informazio guztia berrikusi, bateragarritasun-azterketa espezifiko bat egin eta aprobetxamenduaren titularrekin hainbat bileretan elkartu ostean, ondoren aipatzen diren akordioak erdietsi dira, ur-erabileren eta emari ekologikoen arteko bateragarritasunaren bilaketan aurrerapausoak emateko asmoz:

- Harguneetan errespetatu beharreko emari ekologikoak **indarrean dagoen Plan Hidrologikoa** ezarritakoak izango dira eta jarraian jasotako akordioetan xedatutakoa kontuan hartu beharko da.
- Agentzia honek eginiko bateragarritasun-azterketan jasotzen den bezala, badirudi uraren erabileren eta emari ekologikoen arteko bateragarritasuna ezin dela erabat bermatu bi harguneetan. Azterketa hori egiterakoan eskuragarri zegoen informazio hoberena erabili arren, egindako diagnostikoa ziurgabetasun ezberdinei lotuta dago; horien artean, erabilitako datu hidrologikoen luzeerari, arroko ur-erabileretan emandako patroia aldaketek eta kontsumitutako ur-bolumenen bilakaerari dagozkienak, besteak beste. Hortaz, dauden ziurgabetasunak murriztu eta konponbideak bilatuko dituen **kudeaketa-plan** baten beharra ezartzen da, ingurumen-helburuen eta uraren erabileren arteko bateragarritasuna handitzeko. Plan hortan, azterketa- eta jarraipen-aldi iragankor bat (2017-2021) zehazten da, ondoren aipatzen diren jarduketak hartuko dituen:
 - Ziurgabetasunak uxatzeko azterketa eta jarraipen espezifikoak egitea: URaren aldetik emari ekologikoen eta aprobetxamenduaren arteko bateragarritasun-mailaren urteko jarraipena eta ur-masen egoeraren urteko jarraipena egingo da eta PAPRESA, S.A.k uraren erabileraren eraginkortasuna hobetzeko aukeren azterketa egingo du.
 - La Fanderia erabiltzaileen erkidegoak ubide osoa berrikusi eta hobetuko du.
 - Fanderia hargunean emari ekologikoen erregimenak erabat errespetatuko dira.
 - Gabierrotako hargunetik ibaian behera, emari ekologikoen erabateko errespetua posible ez denean, jardunbide egoekiekin bat datorren emaria errespetatzea eskatuko da, hau Itsas-lehorreko Jabari Publikoan kokatuta baitago.
 - Bi urtean behin emaitzak eta egoera aztertzeke helburuarekin bilerak egingo dituzte bi aldeek.

IIA Eranskinean ur-aprobetxamendu honen kasuan garatu den parte-hartze aktiboko prozesuaren laburpena jasotzen da.

6. Kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko faseek Hitzartze Prozesuan eragindako aldaketak

6.1 Kontsulta publikoa

Kontsulta publikoko prozesuan Oiartzun UHri eragin ziezaiokeen iradokizun edo alegaziorik jaso ez zenez, ez zen aldaketarik egin bertako emari ekologikoak ezartzeko Hitzartze Prozesuaren inguruan eginiko dokumentuan.

6.2 Parte-hartze aktiboa

Oiartzun UHn B taldean sartu zen ur-aprobetxamendu bakarraren kasuan, parte-hartze aktiboko prozesuaren harira titularrekin egindako bileren emaitza bezala, A-G-2011-0983 erreferentziadun aprobetxamenduan emari ekologikoak ezartzeko **kudeaketa-plan** bat ezartzea adostu zen.

Horren ondorioz, Oiartzun UHn emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuaren harira egindako dokumentuan aldaketa batzuk egin dira, 2018ko otsailaren 20an bi aldeek sinatutako *“Fanderia erabiltzaileen erkidegoari emandako aprobetxamenduan emari ekologikoen erregimena ezartzeko kudeaketa-plana”* delako dokumentuan jasotako akordioen alderdi garrantzitsuenak bertan islatuz.

7. Ondorioak

Oiartzun Unitate Hidrologikoan emari ekologikoen erregimena ezartzeko garatutako Hitzartze Prozesuaren harira kontsulta publikora ateratako dokumentuan aprobetxamenduak A eta B taldeetan sailkatuta zeudenez, kontsulta publikoko fasearen ondoren, parte-hartze aktiboko prozesu bat garatu da.

Kontsulta publikoko fasea amaitu ondoren, Oiartzun UHn eragina izan zezakeen alegazio edo iradokizunik jaso ez zenez, **Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2015eko uztailaren 21eko Ebazpenaren** bitartez, unitate hidrologiko honetako dokumentua onetsi zen, bertako A taldeko ur-aprobetxamenduetan Hitzartze Prozesua amaitutzat emanaz. Aipatutako Ebazpena 2015eko irailaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 173. zenbakian, xede den eremuan sartzen diren udalerrietako iragarki-oholetan eta URAREN web orrian argitaratu zen.

Parte-hartze aktiboko prozesuan hainbat bilera egin ziren URAko eta Oiartzun UHko B taldean sartutako aprobetxamendu bakarraren ordezkarien artean. Eraitza modura, emari ekologikoen erregimena ezartzeko kudeaketa-plan bat adostu zen.

Amaitzeko, **Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren Ebazpenaren** bitartez, Oiartzun UHn emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuaren behin betiko dokumentua onetsiko da, Ebazpen hau GAOn, unitate honetan kokatzen diren udalerrietako iragarki-oholetan eta URAREN web orrian argitaratuz.

I Eranskina. Kotsulta publikoa

IA Eranskinak Oiartzun UHko informazio eta kotsulta publikoko prozesuaren irekieraren inguruan, ingurumen-arloko organo eskudunari bidalitako jakinarazpena jasotzen du.

OIARTZUN UNITATE HIDROLOGIKOA

IA ERANSKINA

HITZARTZE PROZESUKO INFORMAZIO ETA KONTSULTA-
PUBLIKOAREN IREKIERAREN JAKINARAZPENA INGURUMEN-
ARLOKO ORGANO ESKUDUNARI

I. zk.	Unitate Hidrologikoa	OIARTZUN
	Ingurumen-arloko organo eskuduna	Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia (GFA)
	Informazioa helarazitako data	2015/06/04

Ainhoa Iraola
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako zuzendari nagusia
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa Plaza z/g
20004 Donostia-San Sebastian

GAIA: Jakinaraztea “Emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze prozesua – Oiartzun Unitate Hidrologikoa” delako dokumentuari dagokion informazio eta kontsulta publikoaren prozedurari hasiera eman zaiola; Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren EAeko Barne Arroen eremuari dagokion hitzartze prozesuarekin lotuta.

ASUNTO: Comunicación de la apertura del procedimiento de información y consulta pública del documento “Proceso de Concertación para la implantación del régimen de caudales ecológicos - Unidad Hidrológica Oiartzun”, relacionado con el proceso de concertación correspondiente a la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, en el ámbito de las Cuencas Internas del País Vasco.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen duen ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren 15. artikulua araberaren indarrean dauden emakidetan emari ekologikoen erregimena ezartzeko aldera, Hitzartze prozesu bati ekingo zaio, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren 18.3. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

De acuerdo con el art. 15 del Real Decreto 400/2013, de 7 de junio, por el que se aprueba el Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, para la implantación del régimen de caudales ecológicos a las concesiones en vigor se desarrollará un Proceso de Concertación según lo dispuesto en el artículo 18.3 del Reglamento de Planificación Hidrológica.

EAeko Barne Arroen eremuan, Uraren Euskal Agentziari emandako eskumenen esparruan, Hitzartze prozesu hori abian jarri da eta, Plangintza Hidrografikoaren Jarraibidearen 3.4.6. paragrafoari jarraituz, informazioaren eta kontsulta-publikoaren urratsak jaso beharko ditu gutxienez delako prozesu horrek.

En el marco de las competencias atribuidas a la Agencia Vasca del Agua se ha iniciado, en el ámbito de las Cuencas Internas del País Vasco, dicho Proceso de Concertación, el cual, de conformidad con el apartado 3.4.6 de la Instrucción de Planificación Hidrológica, deberá abarcar, al menos, los niveles de información y consulta pública.

Lehenengo urratsari, informazioari alegia, dagokionez, eta emari ekologikoen erregimena ezartzerakoan ahalik eta zabalkunderik handiena lortzearen, Uraren Euskal Agentziak jendearentzat eskuragarri

Respecto al primer nivel, el de información, y con el objeto de conseguir la máxima difusión en la implantación del régimen de los caudales ecológicos, esta Agencia Vasca del Agua ha puesto a disposición del público



jarri du bere web- orrian Hitzartze prozesuari buruzko informazioa. Bertan bildu dira prozesua arautzen duten arau nagusiak, azterketa eta dokumentu teknikoak, bai eta "Dibulgazio dokumentua" deritzona ere, prozesua errazago ulertzen laguntzeko xedez.

Bigarren urratsari, kontsulta publikoari alegia, dagokionez, Uraren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2015eko maiatzaren 28ko Ebazpenaren bitartez, hasiera eman zaio Oiartzun Unitate Hidrologikoan kokatuta eta Hitzartze prozesupean dauden ur-aprobetxamenduen kontsulta-publikorako aldiari.

Honen bitartez, kontsultarako aldiari hasiera eman zaiola jakinarazi nahi dizugu. (jendaurrean kontsultagai jartzeko aldiari) Horrenbestez, gorago aipaturiko 2015eko maiatzaren 28ko Ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hilabete batez dokumentazio hori guztia kontsultagai izango da Uraren Euskal Agentziaren ondorengo egoitzetan:

- Egoitza Nagusia. Orrio kalea 1-3
01010 Vitoria-Gasteiz

- Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa.
Infanta Cristina kalea 11. Villa Begoña
20008 Donostia-San Sebastián

Horrez gain, aipatutako dokumentazioa eskuragarri izango da Uraren Euskal Agentziaren orrialde elektronikoan

en su página web la información relativa al Proceso de Concertación incluyendo las principales normas que lo regulan, estudios y documentos técnicos, así como el denominado "Documento Divulgativo" cuya finalidad no es otra que facilitar su comprensión.

Respecto al segundo nivel, mediante Resolución de 28 de mayo de 2015 del Director General de la Agencia Vasca del Agua, se ha iniciado un periodo de consulta pública en relación con los aprovechamientos de agua existentes sometidos al Proceso de Concertación ubicados en la Unidad Hidrológica Oiartzun.

Por medio de la presente, se le comunica la apertura del mencionado periodo de consulta. A tal efecto, la documentación se podrá consultar desde el día siguiente a la publicación de la citada Resolución de 28 de mayo de 2015, y por el periodo de un mes, en las siguientes sedes de la Agencia Vasca del Agua:

- Sede Central C/ Orrio 1-3
01010 Vitoria-Gasteiz.

- Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales. C/ Infanta Cristina, nº 11. Villa Begoña 20008 Donostia-San Sebastián

Además, dicha documentación estará a disposición pública en la página web de la Agencia Vasca del Agua.

www.uragentzia.euskadi.eus

Gasteizen, 2015eko ekainaren 3an.



Irigo Ansola Kareaga
Zuzendari nagusia/ Director General

II Eranskina. Parte-hartze aktiboa

IIA Eranskinean aprobetxamendu bakoitzaren kasuan garatutako parte-hartze aktiboko prozesuaren laburpena jasotzen da. Prozesu honen emaitzazko dokumentazio guztia ondorengo eskema jarraikiz azaltzen da:

- Hasierako ondorioak.
- Titularrekin egindako bilerak.
- Eztabaidagaien azalpena.
- Lortutako akordioak (dagokien kasuetan).

IIB Eranskinean aprobetxamendu bakoitzaren kasuan garatutako parte-hartze aktiboko prozesuaren emaitzazko dokumentazio osoa jasotzen da (ekoizpen elektrikoko datuei dagokien informazio sentibera ezkutatu da). Ondorengo dokumentuak bildu dira:

- Agentzia honek eginiko bateragarritasun-azterketa.
- Ur-aprobetxamenduen titularrek aurkeztutako alegazio edo iradokizunak.
- URAk eta titularrek sinatutako akordioak.

OIARTZUN UNITATE HIDROLOGIKOA

IIA ERANSKINA

APROBETXAMENDU BAKOITZAREN KASUAN GARATUTAKO PARTE-HARTZE AKTIBOKO PROZESUAREN LABURPENA

OIARTZUN UNITATE HIDROLOGIKOA

Zk.	ESPEDIENTEA	ERABILERA	TITULARRA
I	A-G-2011-0983	Industrialia (errotaritzeta eta paper-fabrika)	Fanderia erabiltzaileen erkidegoa (Errenteriako Udala eta Papresa, S.A.)

A.- Hasierako ondorioak.

Lehenik eta behin, parte-hartze aktiboko fasearen aurretik, Oiartzun UHn B taldean sartu zen aprobetxamendu bakarrarentzat Hitzartze Prozesuarekin loturik eskuragarri zegoen informazio guztia berraztertu zen, A-G-2011-0983 erreferentziadun ur-aprobetxamenduaren harguneetan errespetatu beharreko emari ekologikoen erregimenak eta gaur egungo ur-erabilerak bateragarriak zirela ondorioztatuz.

Aprobetxamendu honen titularrekin egindako lehen bileraren ondoren, non aurretiaz azaldutako ondorioen berri eman zitzaizen, eta alegazio edo iradokizunak aurkezteko hilabeteko epea pasatu ostean, aprobetxamenduaren harguneetan errespetatu beharreko emari ekologikoen erregimenak jakinarazi zitzaizkien.

Paraleloki, titularrek idatzi bat igorri zuten Agentzia honetara, jakinarazitako emari ekologikoen erregimenen ezarpenarekiko beren desadostasuna adieraziz.

Ondorioz, URAK azterketa xeheagoak egin zituen eskuragarri zegoen informazio guztia eta beste datu publiko batzuk kontuan hartuta. Egindako azterketa guztiak *“Estudio de compatibilidad entre los usos del agua del aprovechamiento otorgado a la Comunidad de Usuarios La Fandería y el mantenimiento de los caudales ecológicos”* delako dokumentuan bildu ziren. Azterketa horiek emari ekologikoen erregimenen eta gaur egungo ur-erabileren arteko bateragarritasuna erabat bermatuta ez zegoela ondorioztatu zuten. Lortutako ondorioen berri emateko asmoz, bigarren bilera bat egin zen ur-aprobetxamenduaren titularrekin, eta bertan adostu bezala, URAK 2016ko irailaren 13an bidalitako jakinarazpena baliogabetzeko idatzi bat igorri zuen.

B.- Titularrekin egindako bilera(k).

Parte-hartze aktiboko prozesuaren esparruan hainbat bilera egin dira B taldeko aprobetxamenduen titularrekin, hauei Hitzartze Prozesuaren inguruan lortutako hasierako ondorioak azaltzeko helburuarekin, eta dagokien kasuetan, KEDPHn zehaztutako emari ekologikoen errespetuaren eta egungo ur-erabileraren arteko bateragarritasuna lortzeko akordio desberdinak adosteko asmoz. Kasu honetan, ondorengo egunetan burutu dira bilera hauek:

- 2016/07/14
- 2017/02/22
- 2017/07/12

C.- Eztabaidagaien azalpena.

2016/07/14.- Titularrekin egindako lehenengo bileran URAK Hitzartze Prozesuari loturik aprobetxamendu honi dagozkion alderdien berri eman zuen, baita Agentzia honek egindako informazioaren hasierako azterlanean lortutako ondorioen berri ere. Bertan, hilabeteko epea eman zitzaizen iruditzen zitzaizkien alegazio edo iradokizunak aurkeztu zitzaizen.

2016/08/19.- Titularrek Agentzia honetara idatzi bat bidali zuten, lehenengo bileran jakinarazitako emari ekologikoen erregimenen ezarpenarekiko beren desadostasuna adieraziz.

2017/02/22.- Bigarren bilera honetan, titularrek erakutsitako desadostasunaren aurrean URAK egindako bateragarritasun-azterketaren ondorioak azaltzen dizkie. Azterketa horrek, emari ekologikoen eta egungo ur-erabileraren arteko bateragarritasun osoa bermatuta ez dagoela islatzen du. Halaber, *Fanderia erabiltzaileen erkidegoak* deklaraturako kontsumoen eta ubidetik desbideratzen diren emarien artean

desadostasunak ikusten direla azaltzen die. Gaur egungo ur-erabileren eta emari ekologikoen arteko bateragarritasuna lortzeko, jarduketa-plan baten beharra ezartzen da, betiere URAk egindako azterketan oinarriturik.

2017/06/08.- Ur-aprobetxamenduaren titularrek beren jarduketa-proposamena igorri zioten URari, ur-erabileren eta emari ekologikoen arteko bateragarritasunaren bilaketan aurrerapauso bat emateko asmoz.

2017/07/12.- Titularrek igorritako proposamenaren edukia eta Hitzartze Prozesuaren inguruan sor zitezkeen kontuak aztertzeko helburuarekin, hirugarren bilera bat egin zen. Bertan, A-G-2011-0983 erreferentziadun aprobetxamenduan emari ekologikoen erregimena ezartzeko kudeaketa-plan bat adostu zen.

D.- Lortutako akordioak.

2018/02/20.- *“Fanderia erabiltzaileen erkidegoari emandako aprobetxamenduan emari ekologikoen erregimena ezartzeko kudeaketa-plana”* delako dokumentua sinatzen da. Bertan, bi aldeek adostutako akordio guztiak jasotzen dira, ondoren aipatzen direnak, hain zuzen ere. Dokumentu honen bitartez, parte-hartze aktiboko prozesua amaitutzat ematen da aprobetxamendu honentzat:

- Harguneetan errespetatu beharreko emari ekologikoak **indarrean dagoen Plan Hidrologikoan ezarritakoak** izango dira, jarraian jasotako akordioetan xedatutako kontuan hartuz.
- Agentzia honek eginiko bateragarritasun-azterketan jasotzen den bezala, ur-erabileren eta emari ekologikoen arteko bateragarritasuna ez dirudi osorik bermatuta dagoenik. Azterketa egiterakoan eskuragarri zegoen informazio hobereana erabili arren, egindako diagnostikoa ziurgabetasun ugari lotuta dago; horien artean, datu hidrologikoen luzerari, arroko ur-erabileretan emandako patroi aldaketei eta kontsumitutako ur-bolumenen bilakaerari dagozkienak, besteak beste. Hortaz, ziurgabetasunak murriztu eta konponbideak bilatuko dituen **kudeaketa-plan** bat garatzeko beharra ezartzen da, ingurumen-helburuen eta uraren erabileren arteko bateragarritasuna handitzeko helburuarekin. Plan horrek, azterketa- eta jarraipen-aldi iragankor baten (2017-2021) ezarpena jasotzen du ondoren aipatzen diren adostasunekin batera:
 - Dauden ziurgabetasunak argitzeko asmoarekin, egoeraren azterketa zehatzagoak eta jarraipen espezifikokoak egitea: URaren aldetik, emari ekologikoen eta aprobetxamenduaren arteko bateragarritasun-mailaren urteko jarraipena eta ur-masen egoeraren urteko jarraipena eta PAPRESA, S.A.-ren aldetik, uraren erabileraren eraginkortasuna hobetzeko aukeren azterketa. y del estado de las masas de agua por parte de URA, y estudio de la posibilidad de mejora en la eficiencia del uso del agua a desarrollar por PAPRESA, S.A.
 - Fanderia erabiltzaileen erkidegoak egin beharko duen ubide osoaren berrikustea eta hobetzea.
 - Fanderia hargunean emari ekologikoen erregimenaren erabateko errespetua eskatuko da.
 - Gabierrota harguneetik ibaian behera, emari ekologikoen erabateko errespetua posible ez denean, jardunbide egokiek bat datorren emariaren errespetua eskatuko da, Itsas-lehorreko Jabari Publikoan kokatuta baitago.
 - Bi aldeen arteko bilerak egingo dira bi urtean behin, emaitzak eta egoera aztertzeko asmoz.

OIARTZUN UNITATE HIDROLOGIKOA

IIB ERANSKINA

**APROBETXAMENDU BAKOITZAREN KASUAN PARTE-HARTZE
AKTIBOKO PROZESUAN SORTURIKO DOKUMENTAZIO GUZTIAREN
BILKETA**

OIARTZUN UNITATE HIDROLOGIKOA

Zk.	ESPEDIENTEA	ERABILERA	TITULARRA
I	A-G-2011-0983	Industrialia (errotaritza eta paper-fabrika)	Fanderia erabiltzaileen erkidegoa (Errenteriako Udala eta Papresa, S.A.)
DOKUMENTAZIOA			
1	2016ko abuztuaren 19an Papresa, S.A.-k URari bidalitako alegazio edo iradokizun idatzia.		
2	Fanderia erabiltzaileen erkidegoari emandako ur-aprobetxamenduaren ur-erabileren eta emari ekologikoen arteko bateragarritasun-azterketa (2017ko otsaila).		
3	2017ko ekainaren 8an Papresa, S.A.-k URari bidalitako alegazio edo iradokizun idatzia.		
4	2017ko abuztuaren 14an Papresa, S.A.-k URari bidalitako alegazio edo iradokizun idatzia.		
5	2018ko otsailaren 20an sinatutako akordioa. Fanderia erabiltzaileen erkidegoari emandako aprobetxamenduan emari ekologikoen erregimena ezartzeko kudeaketa-plana.		

OIARTZUN UNITATE HIDROLOGIKOA

ESPEDIENTEA	ERABILERA	TITULARRA
A-G-2011-0983	Industrialia (errotaritza eta paper-fabrika)	Fanderia erabiltzaileen erkidegoa (Errenteriako Udala eta Papresa, S.A.)
DOKUMENTAZIOA		
1	2016ko abuztuaren 19an Papresa, S.A.-k URari bidalitako alegazio edo iradokizun idatzia.	

URA- UR Agentzia
Attn. Agustina Alvarez
C/ Intxaurreondo, 70. 1.piso
20015 Donostia/San Sebastián
Tel.: +34 943 024 800
Fax.: +34 943 024 801

Errenteria, 19 de agosto de 2016

Muy señores nuestros:

Por la presente queremos mostrar nuestra total oposición a la propuesta de modificación de caudales ecológicos presentada en la reunión mantenida en sus instalaciones el pasado mes de julio. Dicha modificación no está en absoluto justificada, y ni su utilidad, ni su conveniencia, ni su efectividad han sido probadas, al contrario que las gravísimas consecuencias que dicho cambio tendría para el proyecto industrial de Papresa, que implicaría el cierre de la misma y la correspondiente destrucción de los puestos de trabajo, tanto directos como indirectos, para el entorno de Oarsoaldea, comarca especialmente castigada por el desempleo.

En la propuesta realizada por URA se pretenden dos cambios:

- Límites numéricos del caudal ecológico
- Incorporación de nuevos límites en la estación de bombeo de Gabierrota (donde no hay además estación de aforos en la que se pueda medir el caudal del río)

Si la pretendida modificación unilateral de los caudales ecológicos en la zona de la Presa, que reconstruyó esta empresa con un importante sobrecoste por seguir unos criterios ecológicos impuestos, ya tiene para nosotros unas consecuencias muy negativas, la incorporación de un caudal ecológico aguas abajo de la toma de Gabierrota, la cuál se realizó a instancias suyas y de acuerdo con su proyecto y sus criterios, supone una condición novedosa imposible de asumir por esta parte ya que conllevaría el cierre de esta empresa.

Hasta el momento, con el caudal ecológico que tenemos adjudicado, cuando no hay agua suficiente en el río Oiartzun para el abastecimiento de la fábrica a través del canal que alimenta

la presa, se toma el resto del agua que necesitamos a través de la estación de bombeo que construimos en Gabierrota, situada a más de 1 kilómetro río abajo en el límite del agua salobre, y situada dicha toma a menos de 30 metros del azud en el que el río Oyarzun pasa a ser ría, es decir, sus aguas se convierten en saladas por la acción de las mareas y se ven afectadas por el influjo de la marea alta. A mayor abundamiento, la toma de aguas de Papresa en Gabierrota no afecta de manera sustancial al Caudal Ecológico, ya que, a diferencia del caso de la presa, en la cuál mediante una estructura artificial se procede a retener el agua para dirigirla por inclinación hacia el canal, en el de la toma de agua se extrae directamente del lecho del río, ocupando dicha toma menos de 1/10 parte del ancho total del río, y no existiendo estructura artificial alguna que dirija el agua hacia dicha toma.

El **proceso productivo de Papresa** se caracteriza, entre otras cosas, por ser un proceso de fabricación bajo pedido (es decir, con imposibilidad de almacenar debido al gran número de referencias y de clientes, tanto de Europa como de América, África y, especialmente, Asia, como por el volumen que ocupan nuestras bobinas y el encajonamiento de la fábrica entre la ría, la vía del tren y la carretera conocida como la variante de Erreterria) y continuo, siendo imprescindible trabajar sin parar, 24 horas al día 360 días al año, para lograr la eficiencia necesaria de las instalaciones.

Con las pretensiones comunicadas por URA, y habiendo analizado los caudales desde el año 2003, nos veríamos obligados a interrumpir nuestro proceso productivo entre uno y tres meses al año, con la consiguiente pérdida de la mayor parte de los clientes, y convirtiendo el proyecto industrial de Papresa en totalmente inviable con la correspondiente pérdida tanto de puestos de trabajo actuales, directos como indirectos, como de futuro, al ser Papresa la empresa que tiene el mayor índice de empleabilidad en los Centros de Formación Profesional de Oarsoaldea.

A la espera de sus noticias. Atentamente,

FDO: D. Iñaki Sanchez Marín

(Director Industrial)



OIARTZUN UNITATE HIDROLOGIKOA

ESPEDIENTEA	ERABILERA	TITULARRA
A-G-2011-0983	Industrialia (errotaritza eta paper-fabrika)	Fanderia erabiltzaileen erkidegoa (Errenteriako Udala eta Papresa, S.A.)
DOCUMENTAZIOA		
2	Fanderia erabiltzaileen erkidegoari emandako ur-aprobetxamenduaren ur-erabileren eta emari ekologikoen arteko bateragarritasun-azterketa (2017ko otsaila).	

ESTUDIO DE COMPATIBILIDAD ENTRE LOS USOS DEL AGUA DEL APROVECHAMIENTO OTORGADO A LA COMUNIDAD DE USUARIOS LA FANDERÍA Y EL MANTENIMIENTO DE LOS CAUDALES ECOLÓGICOS

UH OIARTZUN

Febrero de 2017

Agencia Vasca del Agua / Uraren Euskal Agentzia



Índice

1.	INTRODUCCIÓN.....	3
2.	CARACTERÍSTICAS DEL APROVECHAMIENTO	5
2.1.	RESUMEN DE LOS DATOS DEL APROVECHAMIENTO.....	5
2.2.	REPORTAJE FOTOGRÁFICO	7
3.	ANÁLISIS DE COMPATIBILIDAD DEL APROVECHAMIENTO CON EL REGIMEN DE CAUDALES ECOLÓGICOS.....	9
3.1.	METODOLOGÍA Y DATOS DE PARTIDA	9
3.2.	DESCRIPCIÓN Y RESULTADOS DE LOS ANÁLISIS REALIZADOS	12
a)	Hipótesis 1 (<input type="checkbox"/> l/s, caudal medio declarado en el marco del Canon del Agua)	12
b)	Hipótesis 2 (230 l/s, caudal máximo otorgado)	14
c)	Comparativa entre los resultados de las hipótesis 1 y 2	16
4.	CONCLUSIONES.....	18

Índice de figuras

<i>Figura 1: Ortofoto de detalle del Canal La Fandería, junto con las tomas Gabierrota y La Fandería</i>	<i>3</i>
<i>Figura 2: Relación entre la serie de caudales circulantes por el canal de derivación de La Fandería y el caudal máximo concedido en la toma de dicho canal (160 l/s)</i>	<i>10</i>
<i>Figura 3: Hipótesis 1. Relación entre el caudal aguas abajo de la toma Gabierrota, y los caudales ecológicos en la misma (m³/s): Aguas Bajas (387 l/s), Aguas Medias (521 l/s) y Aguas Altas (708 l/s). (Situación de normalidad hidrológica)</i>	<i>13</i>
<i>Figura 4: Hipótesis 2. Relación entre el caudal aguas abajo de la toma Gabierrota, y los caudales ecológicos en la misma (m³/s): Aguas Bajas (387 l/s), Aguas Medias (521 l/s) y Aguas Altas (708 l/s). (Situación de normalidad hidrológica)</i>	<i>15</i>

Índice de tablas

<i>Tabla 1: Caudales mínimos ecológicos a respetar en las tomas</i>	<i>9</i>
<i>Tabla 2: Relación entre el caudal medio anual (l/s) detraído en la toma La Fandería y el nº de días donde el caudal detraído en Fandería superaría el caudal concesional (160 l/s). (*) La media no incluye el periodo entre nov-2011/agosto-2014.....</i>	<i>11</i>
<i>Tabla 3: Datos Canon del Agua (2009-2015)</i>	<i>11</i>
<i>Tabla 4: Hipótesis 1: Incumplimiento de los caudales ecológicos en la toma Gabierrota...</i>	<i>13</i>
<i>Tabla 5: Hipótesis 2: Incumplimiento de los caudales ecológicos en la toma Gabierrota...</i>	<i>16</i>
<i>Tabla 6: Comparativa entre los resultados de las hipótesis 1 y 2</i>	<i>16</i>
<i>Tabla 7: Volumen medio anual, en l/s, que no es posible detraer desde la toma Gabierrota cumpliendo los caudales ecológicos del Plan Hidrológico.....</i>	<i>17</i>
<i>Tabla 8: Caudales mínimos ecológicos a respetar en cada toma, en l/s, según lo establecido en el Plan Hidrológico</i>	<i>18</i>

1. INTRODUCCIÓN

El objeto del presente estudio es el análisis de la posible repercusión de la implantación del régimen de caudales ecológicos establecido en el Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica Cantábrico Oriental sobre los actuales usos del agua del aprovechamiento otorgado a la Comunidad de Usuarios La Fandería (Ayuntamiento de Oiartzun y Papresa, S.A.).




Figura 1: Ortofoto de detalle del Canal La Fandería, junto con las tomas Gabierrota y La Fandería

Este estudio se enmarca dentro del Proceso de Concertación para la implantación de los caudales ecológicos que viene realizando la Agencia Vasca del Agua con los aprovechamientos vigentes a fecha 9 de junio de 2013.

En fases previas del Proceso, este aprovechamiento fue incluido dentro del denominado Grupo B, que aglutinaba aquellos donde se estimó *a priori* que la implantación de los caudales ecológicos podría ocasionar, en determinados casos, repercusiones relevantes en los actuales usos del agua.

Con estos aprovechamientos del Grupo B se ha realizado un análisis específico para determinar el grado de compatibilidad entre los citados usos del agua y los caudales ecológicos y, en los casos donde se identifiquen repercusiones relevantes, proponer diferentes alternativas para avanzar en la necesaria compatibilización.

En el análisis realizado se ha utilizado la información disponible por la Agencia Vasca del Agua en relación con el aprovechamiento (usos y demandas actuales, situación del aprovechamiento, régimen concesional, etc). Es por ello que las conclusiones de este estudio no tienen en cuenta posibles factores externos, u otros datos, a la concesión que condicionen el aprovechamiento.

El estudio ha sido estructurado conforme al siguiente esquema. En el apartado segundo se resumen las características del aprovechamiento. En el apartado tercero se presentan los datos de partida y el análisis realizado para estudiar la compatibilidad de los actuales usos del agua y el régimen de caudales ecológicos y, finalmente, en el apartado cuarto se recogen las conclusiones.

2. CARACTERÍSTICAS DEL APROVECHAMIENTO

2.1. RESUMEN DE LOS DATOS DEL APROVECHAMIENTO

- **Numero expediente:** A-G-2011-0983
- **Titular:** Comunidad de Usuarios La Fandería (Ayuntamiento de Errenteria y Papresa, S.A.)
- **Río:** Oiartzun
- **Tomas / Caudal concedido en cada toma:**
 - **La Fandería** (ETRS89; X=590384; Y=4795430). Caudal otorgado = 160 l/s
 - **Gabierrota** (ETRS89; X=589905; Y=4795786). Caudal otorgado hasta completar 230 l/s teniendo en cuenta lo captado en La Fandería.
- **Título concesional:**
 - **Resolución de 8 de junio de 2009** por la que se otorga a la Comunidad de Usuarios La Fandería una concesión para el aprovechamiento de agua de 230 litros/segundo de La Fandería y aguas abajo de Gabierrota, sitios en el término municipal de Errenteria, con destino a usos industriales (fábrica de papel) y molinería (La Fandería).

Del caudal máximo otorgado (230 l/s), 160 l/s procederán del Canal de La Fandería respetando los caudales ecológicos y el resto, hasta completar los 230 l/s de la nueva toma mediante bombeo proyectada aguas abajo de Gabierrota.

Condiciones de carácter particular:

